Oiartzungo AP-8 eta GI-20rako 12.sarrera itxita Bilboko norabidean astearte gauean

Azaroaren 3an, asteartean, 21:00etatik 05:00etara.

Bidegik jakinarazten du, azaroaren 3an, asteartean, Oiartzungo AP-8 eta GI-20rako 12.sarrera itxita egongo dela Bilboko norabidean. Itxiera honen helburua da Bilboko norabidean AP-8 eta GI-20ko bifurkazioan bide-segurtasuna hobetzeko lanekin jarraitzea.

Itxiera 21:00etan egingo da, eta ondorioz, ezingo da Oiartzungo ordainlekua erabili AP-8 zein GI-20 errepideak Bilboko norabidean hartzeko. Aurreikusita dago lanek 05:00ak arte irautea.

Tarte horretan Oiartzungo 12.sarrera Bilboko norabidean hartzea aurreikusita zuten erabiltzaileek honako alternatibak izango dituzte:

- GI-636tik Irun M/Oko sarrerara joan AP-8a hartzeko.
- GI-636tik Pasaiara joan eta bertan Beraungo lotunean GI-20a hartu Behobiako norabidean, jarraian Errenteriako lotunean AP-8an sartzeko.

Bidegik gogorarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko, bidaiak aldez aurretik planifikatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarautz, 2026-11-02

Cierre de la entrada 12 de Oiartzun a la AP-8 y la GI-20 la noche del martes

El martes 3 de noviembre de 21:00 a 05:00 horas.

Bidegi informa que el martes 3 de noviembre, la entrada 12 de Oiartzun a la AP-8 y la GI-20 se cerrará en sentido Bilbao. El objetivo de este cierre es continuar con las obras de mejora de la seguridad vial en la bifurcación entre la AP-8 y la GI-20, sentido Bilbao.

El cierre se realizará a las 21:00 horas, y por lo tanto, no se podrá utilizar la estación de cobro de Oiartzun para entrar en la AP-8 y la GI-20. Está previsto que los trabajos se prolonguen hasta las 05:00horas.

Las y los usuarios que tuvieran previsto incorporarse a la AP-8 sentido Bilbao durante ese periodo de tiempo a través del enlace de Oiartzun, tienen las siguientes alternativas:

- Circular por la GI-636 hasta el enlace de Irun M/O para incorporarse a la AP-8.
- Circular por la GI-636 hasta Pasaia y utilizar el enlace de Beraun para entrar en la GI-20 sentido Behobia, para seguidamente incorporarse a la AP-8 en el nudo de Errenteria.

Bidegi recuerda que los horarios establecidos para realizar estos trabajos son aproximados. En este sentido, aconseja circular con precaución, planificar la ruta con antelación y seguir las indicaciones establecidas tanto por las señales como por el personal de obra que se encontrará en el lugar.

Zarautz, 2026-11-02